

“Zaintzari lotutako lan karga behargin gutxi batzuen bizkar dago”



Geno Ereñaga Durangoko Barandiaran egoitzako behargina da, eta Esther Ariznabarreta, Astarloakoa. Egoitzetan oso egoera gogorra bizi dutela diote. Adinduen egoitzetako ratioak igotzea eta zaintza sistema publikoa bermatzea eskatu dute asteon. Martitzenean protesta egin zuten ELA sindikatuko ordezkariekin batera, Ezkurdin • 2

Gerra zibil sasoikoa izan daitekeen mortero baten jaurtigaia topatu dute Durangon

Fray Juan Zumarraga kaleko trasteleku batean topatu zuten jaurtigaia, eguaztenean. Udaltzaingoak inguruko kaleak zarratu zituen, Ertzaintzak jaurtigaia handik atera arte. Gertatutakoak ikusmina piztu du herritarrengan • 5



Gehigarria

Azaroak 25

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA



VITALDENT

900 101 001

WHITE DAYS

AZAROAREN 18TIK 30ERA



DESKONTUA*
ZURE HORTZ-INPLANTEAREN
TRATAMENDUAN

*Promozioak 2020ko azaroaren 18tik 30era balio du, inplanterako eta fase kirurgikorako. Ez du koroarako eta protesirako balio. Ez da bateragarria beste deskontu eta promozioekin, ezta Vitaldentek lagundutako beste finantziazio mota batzuekin ere. CS10715 Erregistro sanitarioa



Esther Ariznabarreta eta Geno Ereñaga
Astarloa eta Barandiaran egoitzetako beharginak
Durango

birusa harrapatu zutenei buruz, zer esanik ez.

Koronabirusak utzi du hildakorik Astarloa eta Barandiaran egoitzetan?

G.E.: Barandiaranen pertsona bakarra hil zen, lehenengo olatuan. Bigarren olatuan kutsatze gehiago egon dira. Beste herritar bat hil da ordutik hona.

E.A.: Astarloan, bost herritar hil ziren koronabirusak jota, lehenengo olatuan.

“**Antsietate handia dugu, nekea, ziurgabetasuna. EPI bategaz lan egitea oso gogorra da, lan guztia aldatzen du eta**”

Eta zuei, zelan eragin dizue egoerak emozionalki?

G.E.: Antsietate handia dugu. Nekea. Ziurgabetasuna. EPIekin lan egitea oso bestelakoa da. Lana erabat aldatzen dizu. Zazpi orduan EPI bategaz lan egitea gogorra da.

E.A.: Gero, bada beste gauza bat. Iru-ditzen zait gizarteak beldurra galdu diola koronabirusari.

Gizarteak beldurra galdu dio koronabirusari?

E.A.: Ez digute erakusten gertatzen dabilena. Bai, koronabirus datuak ematen dizkigute, kopuruak, hildakoak. Baina ez gaixo baten atzean dagoen sufrimendua. Nik gorabeherekin ikusten dut kontua. Batzuetan, lasaiegi ikusten dut gizartea. Eta ulertzen dut denok dugula tarteka lasaitzeko beharrezana. Eta, ostera, beste batzuetan antsietate handiagaz ikusten dut egoera.

“Koronabirusaren datuak ematen dizkigute, kopuruak, baina ez gaixo baten atzean dagoen sufrimendua”

Esther Ariznabarretak Durangoko Astarloa egoitzan lan egiten du, zaintzaile modura; Geno Ereñagak Barandiaranen. Beste hainbat lankidegaz batera, egoitzetako ratioak igotzea eta horien kudeaketa publikoa izatea eskatu dute asteon. ELAko delegatuak dira biak

EGOITZAK • EKAITZ HERRERA

Ariznabarretak eta Ereñagak koronabirusaren aurpegirik garratzenetarikoa bat bizi dute, adinduen egoitzetako. Martitzenean mobilizazioa egin zuten Ezkurdin, ratioak jaistea eta egoitzen kudeaketa publikoa eskatzeko. Egoera gogorra izaten ari dela diote, nahiz eta gabeziak lehenagotik igarri dituzten.

Izurriak egoitzetako gabeziak agerian utzi dituela diozue.

Geno Ereñaga: Behargin falta da arazorik larriena. Zaintzari lotutako lan karga behargin gutxi batzuen bizkar dago eta guztiak aurrera egiten badu, hori gure beharginen lan neurribakoari eskerrak da. Horregaitik, ratioak igotzea eskatzen dugu.

Ratioak igotzea eskatzeaz gainera, zaintza sistema publikoa bermatzea eskatu duzue.

Esther Ariznabarreta: Sare publikoan dauden egoitzetan gutxieneko baldintzak betetzen dira, araudiak horretara behartzen duelako. Beste egoitzetan, ostera, ez dago txanda bakoitzean hainbeste erabiltzaile edo hainbeste zaintzaile arautzen duen gutxieneko zehatzik. Harrigarria iruditzen zait zaintzari lotutako lan karga inoiz baino

premiazkoagoa denean, egoera honetan egotea. Erabiltzaileek arreta handia behar dute. Askok osasun arazo larriak dituzte. Zaintzaile bat dago 25 erabiltzaileko.

Beraz, itunpeko egoitzak egoitza publikoen pare ipintzea eskatzen duzue?

E.A.: Kudeaketa, gutxienez, publikoa izan dadin eskatzen dugu.

G.E.: Zaintzak duina, unibertsala eta doakoa izan behar du. Horretarako, behargin gehiago izatea ezinbestekoa da.

Egoera hau pandemiak ekarri du ala izurria ailegatu baino lehenago ere halantxik zeundeten?

E.A.: Lehendik ere baziren gabeziak. Ratioak igotzeko eta arautzeko eskaria aspaldikoa da. Bestalde, azken hile hauetan eskatu duguna da erabiltzaile bakoitzari egunean ordu biko arreta eskaintzeko modua izatea. Ordu bi horietan

denerik sartzen da: erabiltzaileari gosaria ematea, bazkaria ematea, dutxatzea, lotaratzea eta abar. Hori izan da orain arteko kanpaina. Aurrerantzean dena modu publikoan arautzea eskatuko dugu.

Martxoan eztanda egin zuen guztiak. Zelakoa izan zen ordukoa?

E.A.: Oso gogorra. Hasieran, babes-materiala falta genuen, nahiz

eta hori ez zen gure enpresaren arazoa. Zerbait orokorra zen. Eta, egiari zor, EPIak oso azkar ailegatu ziren gure zentrora. Erabiltzaileentzat, ostera, oso latza izan zen. Askok mugikortasuna galdu zuten, eta ez birusagaitik; isolamenduagaitik baino. Kolpe emozional handia izan zen haientzat. Ezin izan zituzten familiak ikusi. Eta



“**Lan karga behargin gutxi batzuen bizkar dago eta denak aurrera egiten badu, hori langileen lan neurribakoagaitik da**”



Dantzari batek aureskua eskaini zion Gurutzi Arregiren irudiari, txistulariak lagunduta.



Ekitaldiaren amaierako familia argazkia.

'Adopziozko alaba' baino gehiago

Durango 18 herritarren eskariari erantzunda, udalak adopziozko alaba izendatu du Gurutzi Arregi etnografoa, aho batez. Omenaldi ekitaldia eskaini zioten joan zen egunean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

San Agustin kulturguneko argiak amatatu zirenean, irudi bat agertu zen eszenatokiko pantailan. Durango udalbatzaren osoko bilkura. Zuzeneko konexioa. Streaming. Halako batean, Ima Garrastatxu alkatearen berbak: "Aho batez onartzen da Durango adopziozko alaba izendatzea Gurutzi Arregi Azpeitia". Berbok eta berehala, txalo zaparrada lehertu zen San Agustin kulturgunean.

Han egin zuten Gurutzi Arregiren omenezko ekitaldia, joan zen egunean, eta bertan zeuden Arregiren gertukoak: familiako kideak, kulturgintzako eta euskalgintzako ordezkariak, JAED elkarteko kideak, eta Arregiren lankide ohiak, besteak beste. Durango 18 herritarren eskariari erantzunda, udalak adopziozko alaba izendatu du Gurutzi Arregi Azpeitia etnografoa, aho batez. Omenaldi ekitaldiari txistularien

kontzertutxo batez eman zioten hasiera. Eta kontzertu horrek iraun zuen bitartean sartu ziren udal agintariak areto barrura,

"Barandiaran izan da Gurutziren maisua, eta Gurutzi Barandiaranen ikaslerik onena"

udaletxetik ailegatu berri. Jada dena zegoen prest. Hasteko, erreberentzia. Dantzari batek, txistulariaren laguntzaz, aureskua eskaini zion Arregiren irudiari. Agintariak berba egin zuten gero: "Merezi zuen Gurutzik horrelako aitortza, eta pena izan da pandemiarengaitik bizi dugun egoera tamalgarri honek aitortza hau kondizio hobeetan egiten utzi ez izana", esan zuen Ima Garrastatxuk. Bestalde, Julian Riosek Durango alaba bat "irabazi" zuela adierazi zuen. "Pertsona handi bat. Herritar handi bat. Emakume

handi bat. Eskerrik asko, Gurutzi", esan zuen.

Omenaldiko unerik hunkigarrienetarikoa bat Ander Manterolaren eskutik ailegatu zen. Arregiren lankidea izandakoa da Mantetola. "Joxe Migel Barandiaran izan da benetan Gurutziren maisua. Eta Gurutzi izan da Barandiaranen ikaslerik onena eta trebeena", nabarmendu zuen. Elkarregaz Euskal Herriko ermiten inguruko lan etnografiko mardula egin zuten biek.

Arantza Arregik, Gurutzi Arregiren ilobak, Mikeldi saria jasotzen zuen eta Kulunkan musika taldeak ekitaldiaren amaiera markatu zuen, Olatz Zugastiren *Abenduaren hogeian* kantua interpretatuta.

eok
euskotzarak

Ermodo Kalea, 3
48200 DURANGO / Bizkaia
94 681 72 05
otzarak@euskotzarak.com

**OPARIAK
OTZARAK
ELIKADURA
TRADIZIOA**

**EUSKOTZARAK-EK GURE GASTRONOMIA
ESKEINTZEN DIZU OPARI BATEN BITARTEZ**

**20 URTEKO
ESKARMENTUA**

**GOURMET
PRODUKTUAK**

**OPARIAK
ETA OTZARAK**

Bereziki aukeratutako gourmet
produktuak aurkezpen berezi batekin.
Opari ikaragarria dastamenerako.



Durangoko Udalak Boni Macarron omenduko du, Andra Mariko elizpean gozokiak saltzen zituen emakumea

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Badira herritarren irudimen kolektiboan iltzatuta geratzen diren pertsonak, eta zalantzarik barik, horietariko bat da 'Boni', Durangoko Andra Maria elizpean urte luzez makina bat umeri (eta ez hain

umeri) gozokiak saldu izan dizkion emakumea. Durangon gutxi izango dira hark saldutako gozokirik sekula ahoratu ez duten herritarrak.

Bada, kontua da 'Boni' omentzea erabaki duela udalak. "Andra Maria elizpeko martxantera ikur

izan dira eta izango dira durangar askorentzat, gure herriaren oroimen kolektiboaren parte dira eta. Hori dela-eta, oso garrantzitsutzat jo genuen udalak bere irudiari balioa ematea", azaldu du gobernu taldeak.

Udala omenaldia prestatzeko lanetan dabil. Familiagaz egin du berba, eta aurreratu du 'Boni'-ren beraren irudi errealista bat ipiniko duela bera egoten zen tokian, arkupean. Kontua 2017tik dator. EH Bilduk adierazpen instituzionala

aurkeztu zuen orain urte bi egindako osoko bilkura batean, 'Boni' eta Durangoko emakume martxantera omentzeko. Gogoratu beharra dago ere, 'Boni' San Fausto jaietako pregoilari ere izan zela 1993. urtean.



Mobilizazioa egingo dute Durangon, Martitegi euskal preso isolamendu egoeratik ateratzea eskatzeko

Azkenaldian hainbat euskal preso politiko isolamendu egoeratik atera eta gero, gaur egun lurdan Martitegi durangarra da erregimen horretan jarraitzen duen preso bakarra



Presoen egoerari irtenbidea bilatu guran Sarek abiatutako 'Izan Bidea' dinamikaren barruko ekimen baten irudia, Durangon.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Azkenaldian isolamendu moduloetan zeuden hainbat euskal preso politiko egoera horretatik atera dituzte. Mugimendu horien ondoren, lurdan Martitegi durangarra da gaur egun isolatuta jarraitzen duen euskal preso politiko bakarra. Ildo horretatik, egoera hori amaitzea eskatuko duen ekimena prestatu du Durangoko Sarek zaturako.

Eguerdian, 12:00etan, Ezkurdi eta udaletxeko plaza giza kate baten bitartez lotuko dituzte. Ondoren, mosaiko bat osatuko dute, distantziak mantenduz. Preso durangarrari gutunak idazteko aukera ere eskainiko dute, baina gutunak etxetik idatzita eramateko eskatu dute antolatzaileek, jende pilaketak ekiditeko.

Martitegi uztailean Espainiaratu zuten, Frantziatik, eta lehenengo unetik isolatuta egon da Soto del Realgo kartzelan, Madrilen. Une honetan, Martitegiaren moduloan bera dago bakarrik; ez dago beste presorik gune hartan. Gainera, isolamenduaren ondorioz, patio orduak eta komunikazioa murriztuta ditu

eta ezin du kartzelako ekintzetan parte hartu, besteak beste.

Gerturatu dituztenak

Bestalde, Durangaldeko hainbat preso gerturatu edo Euskal Herriratu egin dituzte azken hileetan. Ekainean jakin zen Gorka Lupiañez durangarra Salamancatik Logroño-ko espetxera hurreratuko zutela. Espetxe horretara bertara lekualdatuko dituzte Itziar Alberdi duranga-

Uztailean Espainiaratu zuten, Frantziatik, eta lehenengo unetik isolatuta dago

rra eta haren bikotekide Josu Narbaez ere. Biak Madrilgo Estremera kartzelan egon dira. Aitzol Maurtua atxondarra Huelvatik Palentziara gerturatuko dute, eta, azkenik, Oier Andueza durangarra Euskal Herriratu egingo dute: Murtziatik Basauriko kartzelara.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko azaroaren 20a
19. urtea - 829. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Eguaztenen eguerdian Durangoko kale bi itxita egon ziren ordubetea, Lehergailuak Desaktibatze Unitateak jaurtigaia erretiratzen zuen bitartean





ZORROTZA
CENTRO INTEGRADO
DE FORMACIÓN PROFESIONAL
(ANEXO DE FORMACIÓN
INTEGRADA)

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Lanbide
Zuzen Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

K. LANBIDE	IKASTAROAK	ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK		
OC20483841	Erakundearen eremuko esku-hartzeak antolatzeko laguntza (MF1016_2)	100
OC20483842	Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70
OC20483843	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70
OC20483844	Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)	130
FABRIKAZIO MEKANIKOA		
19480011	Piezak txirbil-harroketara bidez egiteko CNC programak egitea (UF0879)	80
18480172	Fabrikazio mekanikoko produktuen automatismoen diseinua (UF0450)	50
OC20483838	Karbono-altzairuzko TIG soldadura (UF1626)	90
OC20483839	Soldadura karbono-altzairuzko xafra eta profalez estalitako elektrodoekin eta errutilozko elektrodoekin (UF1623)	90
OC20483840	Autocad	40
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
19480015	Automatizazio industrialeko sistematan matxurak diagnostikatzea eta mantentze zuzentzailea egitea (UF2238)	90
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA		
18480170	Linea automatizatueta funtzionamenduen programazioa eta kontrola (UF0626)	70
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
19480102	COBOL analista programatzailea (IFCD003PO)	210
19480103	Microsoft Azuren soluzioen inplementazioa IT azpiegiturretan (IFCD20)	100
PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIAK Langabetuak (praktikak enpresan)		
20485004	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	510
20485121	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioko ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370

Izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak.

“Gaztealdiak hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko balio izan digu”

Maialen Arteagak eta Euskal Herriko beste zortzi gaztek Gaztealdia amaitu zuten atzo, zortzi egunean euskara hutsean bizitzeko erronka. Euskaraldian murgilduko dira orain

GAZTEALDIA • EKAITZ HERRERA

Maialen Arteagak eta Euskal Herriko beste zortzi gaztek Gaztealdia amaitu zuten atzo, zortzi egunean euskara hutsean bizitzeko erronka. Gaztealdia amaituta, Euskaraldian murgilduko dira denak.

Zeintzuk dira esperimentu honetatik atera dituzun ondorio edo gogoeta nagusiak?

Asko hausnartu dugu elkarrizketa elebidunak izatearen inguruan, txip aldaketa bat ematearen inguruan. Euskararen etorkizuna salbatzeko, jarrera aldaketa bat behar dugu. Euskara jakitea ez da nahikoa. Askok jakitea datu huts bat da erabileragaz batera ez badoa. Eta gazteok giltzarri gara horretan. Beharbada ez dugu gure aitita-amamek edo gurasoek jasandakoa bizi izan. Ez dugu hizkuntza baten falta sumatu. Baina hizkuntza baten falta ez igartzeak ez du esan gura hura zaindu behar ez dugunik.

Txip aldaketa aipatu duzu. Zerk lagundu dezake txip aldaketa egiten?

Nik uste nuen txip aldaketa hori eginda neukala, baina Gaztealdia egiterakoan konturatu naiz ez dela horrela. Euskaratik gaztelaniara salto egiten nuen sarri. Ez nintzen gauza egun oso batean euskara

hutsean aritzeko. Txip aldaketarako, kontzientziario handia behar da. Baita elkarrizketa elebidunak modu erosoan izatea ere. Iruditzen zait lorpen horretan dagoela gakoa: ni eroso sentitu naiteke zu erdaraz entzuten, baina ni zuri euskaraz zuzenduta. Eta zu eroso sentitu zaitezke ni euskaraz entzuten, baina niri erdaraz egiten didazunean.

“**Euskara askok jakitea datu hutsa da erabileragaz batera ez badoa, eta gazteok giltzarri gara horretan**”

Zein anekdota bizi izan dituzu Gaztealdiak iraun duen egunetan?

Gaztealdia hasi zen egunean, ama-rentzat pakete bat ailegatu zen etxera. Postariak NAN zenbakia eskatu zidan. Euskaraz eman nizekion datuak, eta ulertzen ez zidala erantzun zidan berak. Urduri sentitu nintzen. Astiro-astiro eman nizekion datuak, euskaraz. Ez zidan ulertzen. Azkenerako, etsi egin behar izan nuen. Gaztelaniaz



Maialen Arteaga Gonzalez
Gaztealdian parte hartu du
Zornotza | 1998

eman nizekion. Beste anekdota bat okindegian izan nuen. Kafe bat eta opil bat eskatu nituen, eramateko. Dendariak ez zidan ulertzen. Euskaraz eta imintzioka errepikatu nion kafea eta opil zehatz bat gura nituela. Egoera deserosoa izan zen hasieran, baina eroso sentitzea lortu genuen amaieran. Zelanbait, bion arteko hitzarmen bat lortu genuen. Egoera ulertu genuen. Beste anekdota bat kuadrillakoekin gertatu zait. Gaztealdian arituko nintzela esan nienean, Tira, bada guk ere parte hartuko dugu,

ezta? esan zidaten. Bestela, badi-rudi adarjotzeak edo haserrealdiak ezin direla euskaraz izan.

“**Euskaratik gaztelaniara salto egiten nuen sarri, ez nintzen gauza egun oso batean euskara hutsean aritzeko**”

Eta orain, erronka amaituta, zer?

Ez dugu dinamika hau zortzi egunetara mugatu gura. Gaztealdiak ate mordo zabaldu du. Hausnarketa pertsonalak eta kolektiboak etorriko dira. Gaztealdiak gauzak ulertarazten lagundu digu. Haserretu zaitezke euskaraz, maitatu dezakezu euskaraz. Ohiturak aldatzen hasteko balio digu, egunerokotasunean dauden jarrera txikiak aldatzen hasteko. Ez dugu hizkuntza puritano bat eskatzen. Jarrera erakitzailea eta hizkuntza zaintzearen kontzientzia behar ditugu.



Euskaraldiaren lokala, Durangon.

Euskaraldia hasita, Ahobizi eta Belarriprest txapak paparrean ipintzeko ordua ailegatu da

Orain urte biko edizioan baino lagun gutxiagok eman arren izena, Euskaraldiko kideek ez dute etsi. Azaroaren 24ra arte luzatu dute egitasmoan izena emateko epea

EUSKARALDIA • EKAITZ HERRERA

Ailegatu da Ahobizi eta Belarriprest txapak paparrean ipintzeko ordua. Euskaraldia martxan dago. Gaurtik abenduaren 4ra arte, Durangaldeko herritarrek hizkuntza ohiturak aldatzeko erronkari helduko diote. Tamalez, badirudi koronabirusak ekarritako testuinguruak Euskaraldiko izen-emateei eragin diela. Durangaldeko herrietan, behintzat, orain urte biko edizioan baino lagun gutxiagok eman dute izena.

"Beherakada igarri dugu. Ez dakit koronabirusak eragindako egoera honi zor zaion, baina egoerak ez du lagundu. Gogo falta moduko bat igarri dugu, eta izen-emateak Internet bidez egiteak egitasmoari hurbiltasuna kendu diolakoan gaude", azaldu dute Zaldibarko Euskaraldiko arduradunek. Egoera hori gainerako herrietan ere islatu da. Abadiñoko taldeak antzeko interpretazioa egin du. Baita Zornotzakoak ere.

Izen ematea zabalik

Dena dela, inork ere ez du esperantzarik galdu. "Egitasmoan izena emateko epea azaroaren 24ra arte luzatu da eta baliteke azken egunetan izen emate kopurua nabarmen handitzea", esan dute Durangotik. Berriztarrek, adibidez, kopuruari eutsi diote. Orain urte biko edizioaren pareko izen ematea lortu dute. "Ez genuen halakorik espero, eta pozik gaude alde horretatik", esan dute.

Angel Mari Unzueta Urkiolako santutegiko parrokoa hil da

Unzueta durangarra Bilboko Elizbarrutiko bikario nagusi ohia zen eta Urkiolako santutegiko parrokoa azkenengo urteetan. Joan zen domekan hil zen, 67 urte gaz

ABADIÑO • A.M.

Azaroaren 15ean, Bizkaiko elizbarrutiak Angel Mari Unzueta hertiarren berri eman zuen. 67 urte zituela hil zen. Unzueta 1979an ordenatu zen, Durangon. Historia eta Geografia ikasketak egin zituen, eta doktoretza Ruhreko unibertsitatean (Bochum, Alemania)

egin zuen. 2006tik 2018ra, Bilboko Elizbarrutiko bikario nagusia izan zen. 2011n Aieteko Konferentzian parte hartu zuen, Elizaren ordezkari legez.

2011n Aieteko Konferentzian parte hartu zuen Unzuetak, Elizaren ordezkari legez

kari legez. Urkiolako santutegiko parrokoa izan da azken urteetan.

Irratigintzan

Unzuetak gustuko zuten irratia eta kazetaritza, eta Bizkaia Irratian eta Herri Irratian parte hartu du urte askoan. ETBko mezen gidoi eta grabaketetan ere parte hartzen zuen.



Unzueta Frantzisko aita santuagaz, 2018an. Bizkeliza.

Parte-hartze prozesuan "utzikeriaz" jokatu izana egotzi dio EH Bilduk Zaldibarko Udalari

ZALDIBAR • A.M.

EH Bilduk sare sozialetan salatu du Zaldibarko Udalak berak udalaren webgunearen bitartez martxan ipinitako prozesu parte-hartzailean ekarpenak egitea "ezinezkoa" dela. Horrez gainera, udal bulegoetan ere inprimakiak prest ez edukitzeaz kexatu da koalizio subiranista. "Prozesuan parte hartzeko epearen erdia igarota, ezinezkoa da aurrekontu parte-hartzaileetan parte hartzea", kexatu dira. "Honek argi erakusten du Zaldibarko udal gobernuak parte hartzeari ematen dion garrantzi eskasa eta aurrekontu parte-hartzaileak egiterakoan erakusten duten utzikeria", salatu dute.

Zaldibarko Udalak 15.000 euro ipini ditu aurrekontu parte-hartzaileen prozesurako. Udalak azaroaren 1ean ipini zuen martxan, eta 16 urtetik gorako zaldibartarrek azaroaren 30era arte dute epea bertan parte hartzeko.



Durango epaile batek lurretako alkatearen kontrako diligentsiak hasi ditu

IURRETA • E.H.

Idazkariari "lan jazarpena" egin izan diezaiokeelakoan abiatu du epaileak ikerketa, ANBOTOk jakin ahal izan duenez. Iurretako idazkariak Iñaki Totorikaguena alkatea eta udaleko kontu hartzailea salatu zituen. Ustezko "prebarikazioa" egotzita eta idazkariari berari egindako "lan-jazarpena" egotzita salatu zuen Totorikaguena. Kontu hartzailea, oster, udaleko beste lankide bati egindako ustezko "lan jazarpena-gaitik" salatu zuen. Horregaitik guztiagaitik, Totorikaguena Amankomunazgoan duen kargua etetea eskatu du Herriaren Eskubideak.

Hibrido Entxufagarrien gama berria

EQ POWER

Ezagutu zuretzat dauzkagun 20 modelo baino gehiago.

Bizitza aukera batetik beste batera salto egitean datza. Horregaitik, Mercedes-Benz-ek duen EQ Power Hibrido Entxufagarrien gama berrian 20 modelo baino gehiago aurki ditzakezu: konpaktuak, berlinak eta SUV-ak. Ezagutu itzazu diesel eta gasolina bertsioak. Mugarik gabe hiri barruan eta hiritik kanpo.

Merkaturatze-eskaintza.

- Gehienez 106 km-ko autonomia elektrikoa¹.
- Wallbox kargatzailea².
- 3 urteko bermea eta mantentze-lana opari³.



Mercedes-Benz



¹GLE 350 de modo elektrikoa, NEDC en arabera. ²Balioko eskaintza 2020/12/31ra arte. ³CompletoCare akordioa: 3 urteko bermea eta mantentze-lana, 60.000 Km egin arte. Higiadura piezak barne hartzen ditu, pneumatikoak izan ezik. Argazkiko modelo agian ez daugokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es/en.

Aguinaga

Concesionario Kontzesionario Ofiziala

Retuerto kalea, 38. Borroa enpresa-parkea, 2A-3 partz.
48903 BARAKALDO. 48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 497 00 74. Tel.: 94 630 17 47.
www.mercedes-benz-aguinaga.es

Botika Zaharra, z/g.
48014 BILBO (DEUSTU).
Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.
48940 LEIOA.
Tel.: 94 463 11 75.

Ekarpenak oinarri hartuta, azaroaren 30ean tailer parte hartzaile bat egingo dute Mañariko dendaren ezaugarriak zehazteko

Herritar guztiei zabalik egongo da saioa, eta haiengandik jasotako iritziekin landutako aurreproposamenetik abiatuko dira



Tailerra gune zabal batean egingo dute; aukeratariko bi frontoia edo kanpoaldeko aterpea dira.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Rafa Harategia ixten denerako, haren oinordekoa hartuko duen dendaren ezaugarriak eta nortasuna zehazten dabilta Mañarian. Lehenengo, galdetegi bat martxan ipini zuten, herritarren iritzia jasotzeko. Informazio horri forma emateko,

tailer parte hartzaile bat antolatu dute azaroaren 30erako.

Prozesuko lehenengo urratsa, herritarrei zabalidutako galdetegia, arrakastatsua izan da. Aste bitan zehar, joan zen barikura arte, 59 pertsonak eman zuten euren iritzia. “Jendeak interes handia era-

kutsi du”, dio Ainara Otxotorena alkateak.

Azaroaren 30eko saio parte hartzailea herriko gune zabalen batean egingo dute. Frontoia eta kanpoaldeko aterpea dira aukeratariko bi. Arratsaldean izango da, 17:30etik 19:30era. Hogeitatu minutuko lan-

Herritarrei zabalik egondako galdetegian 59 lagunek parte hartu dute, gehienek Internet bidez

keta saioak izango dira. Bat amaitu ahala hurrengoari tokia egitea da asmoa, jende pilaketak eragozteko.

Proposamenaren lanketa

Maraka diseinu estudioak gidatuko ditu saioak, eta hango kidea da Eider Aldape. “Galdetegian jasotako ekarpenak eta beste herri batzuetako baldintza-orrietatik hartutako ideiak konbinatuz diseinatutako aurreproposamena panel batzuetan irudikatuko dugu. Ezaugarri

Maraka diseinu estudioko kideak elkarren arteko kontakturik bako saioa lantzen dabilta

horien lanketa bat izango da. Orain arte iritzia eman ez duenari horretarako aukera ere emango diogu”, azaldu du.

Pandemiaren ondorioz, moldatu egingo dute euren ohiko eskema, eta elkarren arteko kontakturik bako saio parte hartzaile bat diseinatzeko dabilta, zeinetan, besteak beste, bakoitzak bere material propioa izango duen. “Gu dinamizatzaile moduan han egongo gara, behar duenari azalpenak emateko”, dio Aldapek.

Bakarrizketa eta musika batzen dituen ikuskizuna Mallabian

Bocabeats bikoteak inprobisazioa, musika eta umorea uztartzen dituen saioa eskainiko du gaur pilotalekuan

MALLABIA • J.D.

Koronabirusa dela-eta, Urriko Jaiak bertan behera geratu dira aurretan. Horren ordez, ‘Udazkeneko ekintzak’ izeneko egitarau alternatiboa landu dute udaletik, azaroan eta abenduan zehar garatuko diren ekintzekin. Hurrengo ikuskizuna gaur izango da, azaroak 20, 18:00etan, Mallabiko pilotalekuan. Bocabeats bikoteak

eskainiko du eta bakarrizketa, musika eta umorea uztartuko ditu. Inprobisazioari ere egiten diote tokia, eta sarritan publikotik jasotako abesti irakodizunetatik abiatzen dira musikaren eta bakarrizketen bitartez umorea egiteko.

Frontoiko aforoa 150 lagunetara mugatuta egongo da, segurtasun tartekak mantentzeko, eta maskara ipintzea derrigorra izango da.



Bocabetas bikotea, euren saioa batean.

Hondeamakina batek ur sareko hodian eragindako matxura konpondu dute udal langileek

Hainbat ordutako lanari eskerrak konpondu zuten matxura



Hondeamakina bat basoan lanean.

OTXANDIO • J.D.

Joan zen domekan, Oleta inguruan lanean zebilen hondeamakina batek kutxatila bat zapaldu zuen eta, horren ondorioz, matxura sortu zuen Otxandioko ur sareko hoditerian. Gertatuta-

koa jakitean, hara bertaratu eta Otxandioko udal langileak matxura konpontzen ibili ziren, gau hartan bertan eta hurrengo goizean. Ordu askotako lanaren ondoren lortu zuten hondeamakinak eragindako kaltea konpontzea.



Izurtzako udaletxea.

Izurtzako Udalak zuntz optikoa hobetu gura du

IZURTZA • J.D.

Herrira heltzen den zuntz optikoko sarea ez da behar den besteko abiadura eskaintzen herriko hainbat puntutan. Gainera, pandemia sasoiaren geroago eta jende gehiagok lan egiten du etxetik, eta abiadura falta hori nabarmendu egin da. Hori dela-eta, udalak diru atal bat sartu gura du hurrengo urteko aurrekontuan, egoera honi irtenbidea emateko. Orain, udal ordezkariak aukerarik onena zein den aztertzen dabilta.



**Azkeneko
aukerak**

IURRETA *Tellitu-n*

*3 logelatako 6 etxebizitza
2 logelatako 11 etxebizitza
Garajea eta trastelekua barne*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Atxondoko ikasle eta gurasoak lapikoak jotzen.

Atxondon lapikoak jotzera irten dute kalera, kalitatezko elikadura bermatzea eskatzeko

Durangaldeko eta eskualdetik kanpoko hainbat ikastetxetan egin dituzte lapiko-jotzeak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berton Bertokoak kalitatezko hezkuntza gura du jangeletan zein ikasgeletan. Horregaitik, martitzenean lapikoak hartu eta kalera irten zuten eskualdeko hainbat ikastetxetan, tartean Atxondoko Herri Eskolakoek. "Lehenengo eta behin, eskerrak eman gura dizkiegu gure ekimenagaz bat egin duten guraso eta ikasle guztiei", adierazi zuen Alex Azpiri Berton Bertokoa dinamikako kideak.

Ikasleen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta, Berton Bertokoako kideek kalera atera zuten euren aldarria, beste behin ere.

"Ikasturte hasiera nahiko gogorra izan dugu eta ezin dugu onartu berriro ere aurreko ikasturtekoa gertatzea. Ezin dugu onartu berriro ere ikasgelak eta jangelak ixtea", gaineratu zuen Azpirik.

Atxondon dozenaka izan ziren lapikoekin kalera irten zuten guraso eta ikasleak. Beharrezana duten

Ikasleen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta, kalera atera dute euren aldarria

eskoletan sukaldea ipintzeko eskatu zioten Hezkuntza Sailari, eta sukaldea dutenetan ateak zabaltzeko, bertako eta sasoiko produktuak sartzeko.

Bestalde, Atxondoko guraso elkarteak kideek dagoeneko onartuta dagoen proiektuari ahalik eta lasterren hasiera emateko eta martxan ipintzeko eskatu diete Atxondoko Udalarari eta Hezkuntza Sailari. "Gure umeei kalitatezko elikadura eta hezkuntza bermatzeko asmoz, proiektua lehenbait lehen martxan ipintzeko eskatzen diegu", adierazi zuten guraso elkarteak kideek.

EH Bilduk Berrizko Udalaren "gardentasun falta" salatu du

Berrizek Amankomunazgoan sartu gura duela "kanpotik" jakin dutela kritikatu du talde subiranistak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak Amankomunazgoan sartzeko asmoa duela "kanpotik" jakin izana salatu du Berrizko EH Bilduk. "EH Bilduko Amankomunazgoko ordezkarien bitartez jakin dugu Berrizko Udalak Amankomunazgoan sartzeko asmoa duela, eta hurrengo hamabost egunetan gauzatzeko asmoa duela", azaldu dute talde subiranistako kideek.

EH Bilduko en ustez, herrian "eztabaida publiko bat" egon beharko litzateke Berrizek Amankomunazgoan sartzeko erabakia hartu baino lehenago. "Eta oraingoz ez da horrelako eztabaidarik egon", jarraitu dute. "Gardentasun eta informazio falta izugarria da, hau ez da EAJren bulegoetan har-

tu beharreko erabaki politiko bat. Erabakia seriotasunez eta txosenak eta datuak mahai gainean izanda hartu beharko litzateke", esan dute oposizioko kideek.

Amankomunazgoan sartzeari "erabaki estrategikoa" izanik, gaia "udal barruko organoetan ez lantzea" ez dutela ulertzen esan dute, eta Orlan Isoird alkateari gaia batzordera eramateko eskatu diote. "Oraingoz, ditugun datuekin ez dugu uste Amankomunazgoan gure gizarte zerbitzuak txertatuta zerbitzua asko hobetuko dugunik. Eztabaidatzeko prest gaude, baina datuak mahai gainean izanda. Eztabaida hori ukatzea errespetu falta iruditzen zaigu", gaineratu dute EH Bilduko zinegotziek.



Berrizko udalbatzako argazkia. ARTXIBOA.

Elorrioko Herri Ikastetxeko Haurreskolako eraikinak eraberritzeko premia duela dio udalak egindako diagnostikoak

Datorren urtean ekingo diote proiektua idazteari, eta lanak epe labur-ertainean eginda egotea aurreikusten dute



Elorrioko Herri Ikastetxeko Haurreskolako eraikina.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Herri Ikastetxeko Haurreskolako eraikina zaharra dela kontuan hartuta, Elorrioko Udalak eraikinaren inguruko diagnostiko bat egitea erabaki zuen iazko urrian, partaidetzan oinarritutakoa. Azaroan hasi ziren eraikina aztertzen, eta hiru mailatako diagnostikoa egin dute, arkitektonikoa, funtzionala eta estrategikoa. Barikuan, udalak diagnostikoaren emaitzen berri eman zuen eta eraikinak eraberritzeko premia duela jakinarazi zuten udaleko kideek. "Diagnostikoan ageri denez, eraikina osorik eraberritu beharko da", adierazi zuten Elorrioko Udaleko kideek.

"Eraikina zaharra da eta, denboraren poderioz, gabezia funtzional eta arkitektoniko garrantzitsuak

erakusten hasi da. Diagnostiko honen ondorioz, eraikinaren egoeraren ikuspegi osoa lortu dugu, eta geroago eta hurbilago gaude Haurreskola berriaren proiektua errealitate bihurtzetik; orain argazki osoa dugu, badakigu zeintzuk diren egin beharreko jarduketak.

Haurreskolan diagnostiko arkitektonikoa, funtzionala eta estrategikoa egin dute

Lehenengo urratsa eman dugu eta datorren urtean ekingo diogu proiektua idazteari", jakinarazi du Maria Herrero alkateordeak.

Lanak epe ertainean

Lanei dagokienez, Elorrioko Herri Ikastetxeko Haurreskolako eraikina epe ertainean eraberrituta izatea aurreikusten dutela azaldu dute gobernu taldeko kideek.

"Gatazka honen irtenbide bakarra saharar herriak erreferenduma egitea da, zer gura duen galdetzea"

Durungaldeko hainbat herritan mobilizazioak egin dituzte, azken egunotan, saharar herriari babesa adierazteko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Hayeba El Kori sahararra Aaiun okupatuan jaio zen. Tinduferako bidea hartu zuen bost urtegaraz, ahizpagaz eta amamagaz batera, bonbardaketan azpian. Hamabi urtegaraz, Kubara joan zen bizitzera. Handik kanpamenduetara itzuli zen, lanera. Orain, Durangon bizi da. El Korik saharar herriaren egoeraz berba egin du.

Hainbat mobilizazio antolatu duzue egunotan, Durangon, Elorrión, Zornotzan, Bilbon... Babesa jasotzen ari zarete?

Populazio zibilaren babesa jasotzen gabiltza. Manifestaziora doan jendearena, eskolan zein kalean ezagutzen nautenena... Eusko Jaurlaritzak gure borroka guztian babestu gaitu. Baina espainiar gobernutik ez dugu batere babesik jaso.

Zer gertatu da Guergueraten?

Sekula ere heltzen ez den irtenbide baten zain gaude. Zulo bat dago Marokok eraikitako harresian, lurralde okupatu eta liberatuen ar-

tean. Pasabide horrek 5 kilometro ditu. Handik Marokoren merkantziek irteten dute Afrikara. Sahararen eta Mauritaniaren arteko muga da. Ez du Marokoko mugagaz zerikusirik. Leku horretatik Saharako aberastasuna ustiaturaz lortutako merkantzia ateratzen ari dira. Populazio zibilak hiru aste daramatza han kanpatuta. Fronte Polisarioak esan zuena da su eten batean egon arren, nekatuta gaudela. Marokoarren batek gure zibilen bati eraso egiten badio, su etena etengo zuela. Azaroaren 13an, soldadu marokoarrek zibilei eraso egitera irten zuten. Eta une horretan Fronte Polisarioak su etena hautsi zuen.

Harresi horretan NBEko MINURSOko soldaduak daude. NBEak ez dio ezer oraingoz.

MINURSOk ezikusiarrena egiten du Marokok egiten duenaren aurrean. NBE isilik dago, eta guk diogu Marokoren alde gure alde baino gehiago egiten duela.

Zure istorio pertsonalak ondo azal-



tzen du saharar herriaren ibilbidea okupazioa gertatu zenetik.


Ni Aaiun okupatuan jaio nintzen, Espainiarena zenean. Abenduaren 31n jaio nintzen, eta emagin espainiar batek artatu ninduen. Bost urte nituenean, ahizpa eta biok amamagaz ihesi joan ginen, aldean eraman genuenagaz. Ma-

rokoren bonbardaketapean joan ginen eta Aljeriarako bidea egin genuen. Aljeriak lur zati bat utzi zigun harria eta hautsa baino ez dagoen desertu batean. Han ez dago besterik, baina hantxe instalatu ginen. Umetan egindako bidea ez dut gogoratzen. Akordu bakarra da zarata gogor bat entzun nuela eta

arbola baten azpian babesa hartu genuela. Irudi hori dut buruan.

Gatazkak badu irtenbiderik?

Inork ere ez du gura gerrarik. Baina irtenbide bakarra saharar herriak erreferenduma egitea da, zer gura duen galdetzea. Baina promesak egin beharrean, erreferenduma bera egin behar da.



Goi-pasabideak San Antonio auzoaren alde biak batuko ditu.

Biribilgune bat eta goi-pasabide bat ipiniko dituzte San Antonion

Aldundiak eta Zornotzako Udalak udaberrian hasiko dituzte San Antonio auzoko errepidea hobetzeko lanak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Foru Aldundiak eta Zornotzako Udalak Eubatik Montorrrainoko tartea hobetuko dute. Biribilgune bat eta oinezkoentzako goi-pasabide bat ipiniko dituzte San Antonio auzoan, Inbisa industrialdearen parean, eta erraketa moduko bat Montorrran, trafikoa bideratzeko. "Obra hauei eskerrak, trafikoa apaldu eta segurtasuna hobetu

egingo da oinezkoentzat", esan du asteon Imanol Pradalesek, Foru Aldundiko Azpiegiturarako diputatuak. Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkatearen esanetan, "oso albiste ona da, batik bat San Antonio auzotarrantzat. Puntu beltz ugari konponduko dira. Industrialdeetarako sarrerak ere bai". Udaberrian ekingo diete lanei, 7,5 milioi euroko inbertsioagaz.



Etixerako zerbitzua eskaintzen duten tabernen informazioa erabilgarri Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak etxerako zerbitzua eskaintzen duten tabernen eta jatetxeen inguruko informazioa zabaltzeari ekin dio. Eskuorri batzuk banatu ditu herritarren buzoietan, eta bere web orrian ere ipini du ostalari bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuaren berri. Tabernaren batek bere menua edo eskaintza web orri horretan bertan iragarri gura badu, nahikoa du sustapena@amorebieta.eus helbidera mezu elektronikoa bidaltzea eta informazioa zein den jakinaraztea.

Udalak herriko kontsumoa sustatzen jarraituko duela adierazi du, eta herritarrei ostalari-tzari laguntzera deitu die.



Gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak 2020

Diru-laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren %50ekoa izango da. Gehienez ere, hilabete bakoitzeko, 250 euroko laguntza emango zaio eskaera bakoitzari.

Dirulaguntza hauek Iurretan erroldatutako 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude.



Oinarriak HAZen, (Bidebarrieta 5), edo udalaren web gunean eskura daitezke eta eskabideak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 16tik Abenduaren 15era bitartean egongo da zabalik.

Bizikletak garbitzeko beste gune bat ipini dute Durangon, Landako inguruan

Proiektu honek aurrekontu parte hartzaileetan jasotako proposamenetan du oinarria

DURANGO • A.M.

Durango Udalak bizikletak garbitzeko beste gune bat ipini du, Landako inguruan. Aurretik, bizikletak garbitzeko gune bat atondu zuen Tabiran, ekainean. "Neurri txiki hauen bitartez, durangarren eskaerei erantzun gura diegu. Ildo horretan, aurrekontu parte hartzaileak tresna ezin hobea dira euren proposamenak planteatu ahal izateko", azaldu zuten Julian Rios alkatordeak eta Ane Abanzabalegi



Landakon dago gunea.

zinegotziak gunea estreinatu zuten. Durango Udalak proiektu parte hartzailea ipini zuen martxan 2019an, herritarrek "modu zuzenean" herriko zenbait proiektutan parte hartu ahal izateko, "historian lehenengoz".

Erabilera librekoa, hasieran

Udaleko ordezkarien esanetan, hasieran "erabilera librekoa" izango da, eta gero aplikazio edo txartel baten bidezko erabilera-gaz arautuko dute. "Denon artean zaindu dezagun, hemendik aurrera zerbitzu berri bat eskainiko digu-eta durangar guztioi. Aurrerantzean, mendira bizikletan joatea gustatzen zaien guztiek aukera izango dute bizikleta garbi dutela etxera bueltatzeko".

Politikan

Marian Bilbatua
EH Bildu



SAHARA ETA PALESTINA Testigantzak

"Bideak Gurutzatuz" ekimenaren bidez, Palestina eta Sahararen egoera politikoez eta beraien kulturaz informazio anitzak: hitzaldiak, erakusketak, ipuin kontaketa, testigantzak... jasotzeko aukera ezin hobea izaten ari gara Durango-ko bibliotekan eta San Agustin Kultur gunean.

Sahara eta Palestinako herriak jasaten ari diren okupazioak eta sufrimenduak badituzte erantzule zuzenak. Kasu bietan deskolonizazioa bermatzeko ardura zuten herrialdeek (Inglaterra eta Espainia) beraien erantzukizunari iskin egin eta beste estatuen (Israel eta Maroko) okupazioa babestu zuten. Urteetan, interes ekonomikoek eta politikoek bi herri hauen eskubideak defendatuko lituzketen irtenbideak oztopen dituzte. Kasu bietan nabariak dira Europako estatuen eta NBERen konplizitatea Marokoren eta Israelen nazioarteko legeek ezarritako arauen hausturaren aurrean.

Azpijokoak, interesak eta konplizitateak irtenbide baketsuaren aukerak zapuztu dituzte eta Sahararen kasuan su etenaren haustura eta borroka armatuaren itzulerara eramanez dute. Hautatu duten bidea ez zaiela erraza izango jakitun, beraiei mina eta desesperazioa eta, aldi berean, beraien eskubideak defendatzeko determinazioa erakutsi dizkigute emakume sahararrek Durango elkarretaratzean.

Horregatik, diplomazian eta borroka armatuan izan ditzaizketen zailtasunen aurrean gure solidaritatea eta laguntza emateko aukerak jorratzeko bideak topa ditzaizun eta gizartearen beraien borrokaren berri eman dezagun.

Durungaldea asteen

38.000 'Amorebono'-tik gora saldu dituzte Zornotzan, komertzioei laguntzeko

Zornotza | Zornotzako Udalaren esanetan, 'Amorebono'-k 770.000 euro inguruko inpaktu ekonomikoa eragin du Zornotzan. Abenduaren 15era arte iraungo du kanpainak. "Zornotzako Udalak udalerriko sare ekonomikoa babesteko konpromisoa erakutsi du berriro", azaldu dute udal iturriek. 18.000 bonutik gora daude eskuragarri oraindik. Herritarrek 20 euroko balioa duten bonuak erosi ditzakete. HAZko bulegoetan erosi ahal dira.

Berrizko XXII. Argazki Lehiaketa abenduaren 11ra arte egongo da martxan

Berriz | Berrizko Udalak XXII. argazki lehiaketa ipini du martxan. Udaletik azaldu dutenez, gaia Berriz izango da, hau da, herriko biziagaz eta ohiturekin, jaiekin, kirolagaz, arkitekturgaz eta kulturagaz du zerikusia. 750 euro banatuko dituzte saritan.

Sahara Euskadi mugimenduak elkarretaratzera deitu du zapaturako

Durango | Zapaturako, hilak 21, elkarretaratze bateratura deitu du Sahara Euskadi mugimenduak. Marokok Mendebaldeko Saharako su etena apurtu izana salatuko dute bertan. "Euskal Herria herri solidarioa izan da beti saharar herriagaz eta bere borrokagaz", azaldu dute ohar baten bitartez. 13:00etan egingo dute protesta, Andra Marian. Aurreko asteburuan mobilizazioak egin zituzten hainbat herritan.



Iritzia

Harria bota eta eskua gorde

Pertsona txarra izan behar da behar ez denarengana jo eta hari ozpin jarioka hasteko "urlia maskararik barik doa, sandia sudurra ondo tapatu barik eta berendia ahoa bistan, jaten". Zer eta *arau urratzaileak* aire librean doazenean, demostratuta dagoenean zeru zabalaren azpia dela lekuri seguruena birusaren kontra.

Inork ere ez du zuk botatako harri hori jaurtitzeko eskubiderik, letra odoltsuz "zu errudun, zu insolidario, zu arduradun" idatzita duen harria, inork ere ez dituelako errespetatzen arau guzti-guztiak (zentsuzkoak zein zentsurik bakoak). Harri horrekin ez dugu birusa desagerraraziko, ezta kutsatuen kopurua jaitsiko ere, eta gutxiago hankarik eta bururik bako neurriekin. Ez da bidezkoa gure egonezina, gure frustrazioa, gure beldurra eta gure tristura lagun hurkoari, herrikideari edo *sursum cordari* errua leporatuta itotzea, immorala eta gizatarrekoa delako eta ez dakigulako segurantz osoz zein zirrikitutatik sartzen den birusa.

Gehiago irakurri behar genuke denok, ahalik eta ondoen informatu, eta telebista gutxiago ikusi, onartezina delako hainbat komunikabidek alarma soziala muturreraino eramatea, jendarteari halako beldur neurtezina hezurretaraino sartzea eta zama guztia edo gehiena herritarrei, zer esanik ez ostalariei, bizkarreratzea. Alarma sozial horrekin, azkenean elkarri begietara begiratzeak ere beldurra emango digu, birusa nondik etorriko, eta ez dago gauza eskasagorik lotuta eta beldurra gorputzetik astindu ezinik bizitzea baino.

Beraz, harri astun eta pozoitsu hori jaurti eta eskua bizkar aldean gorde beharrean, gorde harria poltsikoan, jaurtita ez duzu ezertan ere laguntzen eta.

Mikel Azkarraga Etxegibel (Abadiño)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Jaso
liburuak
zure etxean!

Eskera WhatsApp-ez eskatu
686 214 964



bizum -ez ordaindu



clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarría

Dakizuen, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA



***Tratu txarren biktima diren emakumeentzako
arreta psikologikoa eta zerbitzu juridikoa
946 200 492***



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



"Josefina Lambertoren kasua berezia da, egondako errepresioa kontatzen duen gutxienetarikoa delako"

Iruñeko zinemagile bik Josefina Lambertoren bizimodua jaso dute 'Florencia' dokumentalean. Filma orain egun gutxi aurkeztu zuten Abadiñon



Juan Luis Napal eta Virginia Senosiain zinegileak.

Josefinaren ekarpena berezia da. Kontuan hartu behar dugu Nafarroan errepresio kasu asko egon zirela. Hilketa pila bat. Batez ere, 1936ko egun horietan. 3.400 bat hilketa egon ziren. Eta hemen,

Gorpu asko ez dira sekula ere agertuko. Etxebizitzak eta errepideak eraiki dira horien gainean

Nafarroan, gertatu dena da urte askoan horiek kontatzeko beldur handia egon dela. Familia askok ez dute ezer kontatu. Beldur izan dira. Baina Josefinaren kasua berezia da, gertatu zena kontatzen duen gutxienetarikoa delako.

Josefina bere aitaren eta ahizparen arrastoaren bila ibili da urte luzez, nekatu barik. Zelan dago auzia?

Vicente aitaren gorpua ez da oraindik agertu. Maravillasena, bai, agertu zen bere sasoiaren. Erdi biluzik eta hankak txakurrek janda aurkitu zuten. Baina Josefinak beti jardun du aita bilatzen. Eta segituko luke, baina berak dioen bezala, jada ez du indarrik. Nafarroan egundoko lana egiten ari gara gai honekin. Gorpua bilatzen segitzen ari dira. Baina gorpu asko ez dira sekula ere agertuko. Etxebizitzak eta errepideak eraiki dira horien gainean.

**91 urte izan arren, Josefinari ez zaio borrokarako sena amatu. Dokumentalak erakusten du Iruñeko Paris 365 jantoki sozialera joaten dela eta lotura estua duela Maravillas gazte-
txeko kideekin.**

Josefina Iruñeko Misericordia egoitzan bizi da eta astero-astero joaten da Paris 365 jantoki sozialera. Gurditxoa hartzen du, betetzen du azukre-koskorrez edo sagarrez, eta jantoki sozialean entregatzen du batutakoa. Bere modura bada ere, badu laguntzeko indarra. Maravillas gazte-
txearekin ere berdin. Eraikinekoak irtenarazi zituzten arte, ia egunero joaten zen gazte-
txeko gazteengana. Gozokiak eramaten zizkien. Atera zituzten egunean, alkatearengana joan zen halakorik egin ez zezaten eskatzeko. "Bere gazte-
txoak" zirela zioen. Oso emakume konprometitua da.

Dokumentala aurkezten segituko duzue aurrerantzean?

Bariku honetan, azaroaren 20an, Ondarroan aurkeztuko dugu. Oraingoz, horixe da Bizkaian dugun data bakarra. Dena dela, hainbat data ari dira irteten. Nafarroan, adibidez.

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Juan Luis Napal (Iruñea, 1975) eta Virginia Senosiain (Iruñea, 1973) zinemagileek 'Florencia' dokumentala aurkeztu dute orain egun gutxi Abadiñon. Dokumentalak Josefina Lambertoren bizimodua kontatzen du. Nafarroako Larraga herrian sortu zenetik gaur arte, askotariko errepresio formak jasan ditu Josefina Lambertok. Beharbada, haren ahizpa Maravillas egin ziotena da jasan duen errepresio gertakariarik handienetarikoa. 1936ko altxamendu faxistaren testuinguruan, Guardia Zibilak Josefinaren aita eta Maravillas ahizpa eraman zituen etxetik. Harrezkero, ez dago aitaren berririk. Ez dute haren gorpua inon topatu. Maravillasen gorpua, oster, bai, topatu zuten. Atxilo hartu zutenek hainbat bider bortxatu zuten, eta hil eta gero txakurrei eman zieten haren gorpua. Napalek erantzun die ANBOToren galderei.

Josefina Lamberto beti ezagutu dugu Maravillas Lambertoren ahizpa lez. Maravillasek izan du entzuterik handiena, baina dokumentalagaz leku-
txoa egin gura izan diozue Josefinari. Bai, halaxe da. Josefina beti aurkeztu zaigu Maravillasen ahizpa lez. Tamalez, 14 urte gaur, hil egin zuten Maravillas, baina orduan hona beti borrokan egon dena bere ahizpa Josefina izan da. Familiakoen gorpua bila ibili da beti. Dokumentalak omenaldia egin gura dio Josefinaren borrokari. Filmean, bistakoa denez, Maravillasen gertakaria

azaltzen da, baina Josefinaren bizimodua lantzen du batez ere.

Zelan sortu zen dokumentala egiteko ideia?

Aurretik egin genuen dokumental batetik dator dena. *Insurgencia* dokumentaletik, hain zuzen ere. Espainiako estatuan egondako errepresioari buruzko dokumentala da. Euskal Herrian izandako errepresioaz gainera, Espainiar estatuan egondakoak aztertu genituen. Josefina elkarrizketatu genuen, berak bizitako errepresioa salatu zezan. Josefinari 6-7 bat minutuko elkarrizketa egitea zen gure ideia, baina ordu eta erdiko batek irten zuen azkenean. Elkarrizketa amaituta, Virginiak eta biok elkarri

1936ko egun horietan 3.400 bat hilketa egon ziren

begiratu genion. Konturatu ginen hor beste dokumental bat zegoela. Azkenean, *Florencia* dokumentala sortu dugu.

Dokumentalean Josefinaren aldarte borrokalaria ikusten dugu, baina baita bere samurtasuna ere.

Kutsu hori dago filmean zehar. 91 urte ditu eta erakusten digu emakumearen borroka gazte-gaztetatik eraman daitekeela zahartzarora arte.

Zein ekarpen egiten dio Josefinak emakumeen borrokari?

INDARKERIA MATXISTARIK EZ

ADIERAZI ZURE GAITZESPEN IRMOA
INDARKERIA MATXISTARI ZURE
ETXEKO LEHIOAN, NEGOZIOAN...
PUNTU HAU JARRIZ.

Emakumeen aurkako indarkeria emakume eta gizonen arteko botere-harreman desorekatuen eta emakumeen aurkako diskriminazioaren adierazpen bat da.

Ezinbestekoa da emakumeok duintasunez eta segurtasunez bizitzeko oinarritzko eskubidea berreskuratzea.

Abadiñoko Udalak, abadiñar guztiei dei egiten dizuegu parte hartzera ondorengo jardueretan:

Eguna	Ordua	Ekintza	Lekua
AZAROAK 20	17:00	BELDUR BARIK LEHIKETA Indarkeria Sexistaren aurrean Beldur Barik jarraera! - (Euskadi mailan) 12 ETA 26 URTE ARTEKO GAZTEENTZAT	ONLINE www.beldurbarik.eus
AZAROAK 25		GURE ZAPATETAN - Eremu publikoan indarkeria matxistaren aurkako ahalduntze kolektiborako erakusketa.	ABADIÑOKO KALEETAN
AZAROAK 25	19:00	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA - Kontzentrazioa -	TRAÑABARREN KALEA

Tailerretan apuntatzeko : naroa.argoitia@abadiano.eus / Tel. 662 326 118
Tailerretan Indarkeria Matxistaren aurkako musukoak emango dira.

Saretzeak eta antolatzeak duen garrantzia azpimarratuko dute azaroaren 26ko tailerrean

Saioa Elorrioko udalbatzar aretoan egingo da eta 16tik 26 urtera arteko neskei bideratuta dago



Elorrioko udalbatzar aretoan eskainiko dute tailerra.

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Indarkeria matxistari aurre egiteko biderik eraginkorrena mugimendu batean batzea eta saretzea dela azpimarratuko dute azaroaren 26ko tailerrean. Elorrioko udalbatzar aretoan egingo dute saioa, 18:00etan, eta 16tik 26

urtera arteko neskei bideratuta dago. Euskal Herriko Bilgune Feministako eta Durangoko Mugimendu Feministako kidea den Ainhoa Olasok gidatuko du tailerra. Hone-laburbildu du saioaren helburua: "Norbanako moduan ariketa asko egin daitezke egunerokotasunean

jarrera matxistei aurre egiteko, baina mugimendu feminista batean antolatzea premiazkoa da benetako eradalketarako".

Azken urteetan, herri askotan neska gazteek osatutako taldeak sortu dira eta Euskal Herriko Neska Gazteen Sarean batzen dira. Bibrilketeta eta Zornotzako Suhaziak dira eskualdean azken urteetan sortu diren neska gazteen taldeak.

"Mugimendu feminista batean antolatzea premiazkoa da benetako eraldaketa baterako"

Elorrioko saioan, besteak beste, herriko zein Euskal Herriko mugimendu feministaren egoera errepasatuko dute. Horrez gainera, tertuliarako tartea ere hartuko dute, ideiak eta hausnarketak plazaratu eta elkarren artean eztabaidatzeko.

Izen-ematea berdintasuna@elorrio.eus helbidean egin daiteke.

Kattalin Miner-en 'Moio' liburua aurkeztuko dute

Orain 13 urte bere buruaz beste egin zuen Aimar Elozegi gazte transexualaren kasua aztertzen du liburuan

ELORRIO • J.D.

Azaroaren 25era begira udalak antolatutako ekimen sortaren barruan, Kattalin Miner idazle, kazetari eta ekintzaile feministak (Hernani, 1988) 2019an argitaratutako *Moio: gordetzea ezinezko zen* liburua aurkeztuko du azaroaren 24an. Aurkezpena Interneten bitartez egingo dute, 18:30ean, eta euskaraz izango da. Izena ematea berdintasuna@elorrio.eus helbidean egin daiteke.

Aimar Elozegi Ansa gazte transexualak bere buruaz beste egin zuen orain 13 urte eta liburuan horren inguruko memoria ariketa egin du Minerrek. Besteak beste, elkarrizketa moduan jasotako bederatzi testigantza jaso ditu (Elozegiren anaia, lagunak, Medeak talde transfeministako kideak...) gertatu zena ahalik eta ikuspuntu gehienetatik lantzeko helburuagaz.



Liburuak iaz ikusi zuen argia, Elkar argitaletxearen bitartez. KRONIKA.EZ

Azaroak 25a



INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA



Elorrioko udala

Azaroak
20
Ostirala

Beldur Barik Sari Banaketa

www.beldurbarik.eus webgunean emango da zuzenean streaming bidez, euskal artista ezberdinek sari-banaketa girotz. Elorrioko gazteren batek irabaziko ote du?

BELDUR
BARIK

Azaroak
24
Asteartea

18:30

KATTALIN MINER

"Moio" liburuaren aurkezpena

Bere lagun Aimar Elozegi Ansa "Moio", hamar urte lehenago hila, gogorarazten duen liburua aurkeztuko digu. Heriotza horrek suizidioa eta transexualitatea batu zituen, gure jendarteko bi tabu. Transexualek gairiditu behar dituzten oztipo ikusgarri eta ikusezinak marrazten dira, gurean deklaritutako eta ezkutatutako transfohiak.



Online. Euskaraz

Izena ematea beharrezkoa da: berdintasuna@elorrio.eus
946 57 08 09

Azaroak
25
Asteazkena

19:00

Elorriko Indarkeria Matxistari Ez

Udalak bat egin du Elorriko Asanblada Feministak deitutako elkarretaratzearekin plazan.

Azaroak
26
Osteguna

18:00

Indarkeria matxistaren aurrean, neska gazteen autodefentsa: saretzea!

EUSKAL HERRIKO
NESKA* GAZTEEN SAREA

Plaza mugatuak. 16-26 urte bitarteko neskenzat.

Euskaraz

Izena eman: berdintasuna@elorrio.eus
946 57 08 09

Pandemiaren ondorioz, jarduera hau alda daiteke. Adi egon!

Hartu zure puntu lila
Udaletxean, Iturri Kultur
Etxean edo Turismo Bulegoan!
Eta jarri kristal batean!

“Emakumeok ez gara ezagutzera ematen eta gizarteak ere ez digu horretan laguntzen”

Abadiñon bizi den ikerlariak gaztetxoen artean zientzia eta teknologia bultzatu gura ditu

Mari Luz Guenaga Gomez
Ingeniaritza informatikan
doktorea, irakaslea eta
ikerlaria
Eibar | 1975



aukeratzeko ordua heltzen zaie-nean, gazteek ez dute zientziara eta teknologiarantz jotzen. Hau ikasketa konkretu batzuetan gertatzen da gehienbat, ingeniarietan, lanbide heziketa teknikoetan, mekanikan, matematikan eta horrelakoetan. Gazte gutxi aukeratzeko dituzte ikasketa hauek. Hori gutxi balitz, horietariko oso gutxi dira emakumeak. Gaur egun, arlo horretako egoera larria da.

Zelan egin daiteke hori erakargarri?
Arazoak hainbat arrazoi ditu. Lehenengoak profesioari buruzko ezjakintasuna da, hau da, gazteek ez dakite horrelako ikasketaren bat eginez gero non lan egin dezaketen; ez dakite zer nolako ibilbide profesionalak izan ditzaketen. Ikasketen inguruan ere hainbat kontu daude. Askotan entzun dugu ingeniari bat oso zaila dela, gutxi batzuk direla gai hori egiteko. Eta horrelako iritziak entzunda, eurak ez direla horrelako ikasketa bat egiteko gai uste dute neskek askotan. Halako aurreiritziak izaten dituzte. Beste arazo bat estereotipoak dira, profesional hauen inguruan dauden estereotipoak. Hau da, sarritan entzun izan dugu profesional hauek pertsona bakartiak direla, ez dutela beste bizitzarik lanaz gainera. Gazteek profesional hauenganako duten irudia errealtatetik kanpora dago, eta ez da batere erakargarria.

Hori guztia gutxi balitz, lehen hezkuntzako seigarren mailatik aurrera, normalean, nesken konfiantza eta segurtasun falta areagotu egiten da. Neskek ez dute konfiantzarik euren gaitasunetan, eta horrek mugatu egiten ditu ikasketak aukeratzeko orduan. Hori

ikusita, nire ustez beharrezkoa da lanketa bat egitea.

Zelan paper duzue zuek eta ikastetxeek horretan guztian?

Ikastetxeek hainbat ekintza txertatuta dituzte zientzia eta teknologiak modu erakargarri eta interesgarri batean egiteko. Guk Inspira Stem proiektua dugu uni-

“**Gazteek ikusten dute zientzia eta teknologia arloan lan egiten dutenak pertsona normalak direla**”

bertsitateetan. Proiektu honetan, sei saiotan, emakume zientzialari eta teknologoak ikastetxeetara joaten dira, hango gaztetxoei profesioak erakutsi eta eurekin batera estereotipoak lantzeko asmoz. Saio hauek, gainera, ikasleei aukera ematen die euren zalantzak galde-tzeko mentoreei.

Gaur egun publikoki agertzen diren erreferenterik gehienak gizonezkoak dira. Horrek ere ez du askorik lagundu, ezta?

Horixe da Inspira proiektuaren ardatz nagusietariko bat. Gertukoak diren erreferenteak jendartera ateratzea da gure asmoa, erreferenteok emakumezkoak zein gizonezkoak izan. Horrela, gaztetxoek ikusten dute zientzia eta teknologia arloan lan egiten duten herriko gizon zein emakume horiek normalak direla eta auzoan zein kalean aurkitu ditzaketela. Beste alde batetik, arlo profesionalean lan izugarriak egiten dituztela ikusten dute.

Nire ustez, gaur egun gertatzen dena da emakumeok ez garela ezagutzera ematen eta gizarteak ere ez digula horretan laguntzen. Beraz, hori aldatu egin beharko da profesional gehiago izateko etorkizunean arlo honetan.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mari Luz Guenaga ingeniari informatikoa eta ikerlaria da. Asteon Txintxirri Ikastolan eskainitako berbaldi batean, umeei eta bereziki neskei zientzia eta teknologia arloak zelan egin erakargarri azaldu du.

Zientzia eta teknologia zelan egin erakargarri azaldu duzu asteon berbaldi batean. Uste duzu gazteentzat ez direla erakargarriak gaur egun?

Umeak txikiak direnean, zientzia eta teknologia erakargarriak egiten zaizkie. Baina ikasketak

Wake Up Woman antzezlan eskainiko dute Berrizko Kultur Etxean, azaroaren 28an

Cecilia Sarli eta Chema Coloma antzezleek plazaratuko dute lana, 19:00etan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, Berrizko Udalak egitaraua antolatu du. Azaroaren 20an, esaterako, Bel-

dur Barik Sari banaketa egingo dute, 17:00etan. Antolatzaileek azaldu dutenez, sari banaketa hau streaming bidez egingo dute.

Bestalde, azaroaren 28an Wake Up Woman antzezlan eskainiko dute. Berrizko Kultur Etxean izango da emankizuna, 19:00etan. Jorge Acebo argentinarrak idatzi eta zuzendutako laneko antzezleak Cecilia Sarli eta Chema Coloma dira. Horrez gainera, Berrizko Udaletik deial-

dia egin diete herritarrei Emakumeen Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira azaroaren 25ean etxeko leihoe-tan puntu moreak ipini ditzaten.

Orain arte, Berrizen ohitura zegoen azaroaren 25ean kalera irteten eta emakumeen martxa egiteko. Ehunka lagun herriko kaleetatik ibiltzen ziren. Baina aurten, egoerak horrela behartuta, bertan behera utzi dute azaroaren 25ean egiten duten martxa.

Berrizko Udalak azaroaren 25ean puntu moreak ipintzeko deia egin diete herritarrei

AZAROAK 25 BERRIZ

Emakumeen aurkako indarkeriari ez

AZAROAK 20

17:00 BELDUR BARIK SARI BANAKETA
Streaming YouTube

AZAROAK 25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN
KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA
Puntu morea etxeko leihoan ipini, emakumeen
aurkako indarkeria gaitzesteko

AZAROAK 28

19:00 WAKE UP WOMAN
Kultur Etxea

Berrizko emakumeentzako laguntza eta
abokatu laguntza zerbitzua
Servicio de apoyo y acompañamiento para las
mujeres de Berriz

688 775 174



Zornotzako neska gazteak Suhaziak taldean batu dira, euren adinekoen arazoei aurre egiteko

Neska gazteen arazoei neska gazteen begiradatik eta ekimenetik aurre egitea da aurten sortutako taldearen helburua



Suhaziak taldeko kideen argazkia.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Suhaziak izenak berak definitzen ditu taldearen jatorria eta nortasuna: belaunaldi berri bateko 'haziak' dira eta matxismoari 'su' emateko jaio dira. Neska gazteen problematika neska gazteen begiradatik identifikatu eta borrokatu gura dute, inoren zain egon barik.

2016an, GaztEraiki topaketen barruan, Euskal Herriko feministak gazteek elkar ezagutzeko eta hartu-emanak sendotzeko aukera izan zutenetik, makina bat talde sortu dira eta Euskal Herriko Neska Gazteak mugimenduaren barruan kokatzen dira. Talde horietariko bat da Zornotzako Suhaziak. "Az-

kenean, Zornotzan gabezia hori zegoela ikusten genuen, ez zegoela neska gazteak batzen zituen mugimendu edo sarerik eta Suhaziak sortzea erabaki genuen", azaldu du taldeko kide den Ainhoa Aurtene-txek.

Aurten gorpuztu dute taldea eta martxoaren 8an irten zuten kalera

lehenengoz, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Handik gutxira, koronabirusa heldu zen eta euren ibilbide-orria eten egin behar izan zuten. Esaterako, uztailerako jardunaldi batzuk antolatu gura zituzten Zornotzan, barne lanketan sakontzeko, baina osasun krisiaren ondorioz bertan behera utzi behar izan zuten ekimena.

Sare sozialetan kanpaina

Kaleko mugimendua murriztuta dagoenez, sare sozialen bitartez ahalegindu dira. Euskal Herriko Neska Gazteek proposatutako kanpainagaz bat egin zuten, esaterako. 'Normaltasuna desnormalizatzen' izeneko kanpaina horren helburua zen neska gazteek egunerokotasunean pairatzen dituzten zapalkuntzak argazkien bitartez eta modu sinbolikoan islatzea sare sozialetan eta. modu horretara, normal moduan hartzen diren egoera horiek desnormalizatzen saiatzea. Sare sozialetan, eta ekimenak harrera ona izan zuen eta emaitza euren sare sozialetan ikusi daiteke.

Kontzentrazioa eta manifestazioa egingo dituzte azaroaren 25ean

ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako Udalak antolatuta, azaroaren 25ean udaletxe parean kontzentratu eta adierazpen instituzionalaren irakurketa egingo dute, 12:00etan. Bizi dugun egoera dela-eta, horixe izango da udalak antolatutako ekimen bakarra aurten, udaleko iturriek azaldu dutenez.

Mugimendu feministak antolatutako manifestazioa 18:30ean hasiko da, Erreferendum plazatik

Bestalde, Zornotzako talde feministak, Suhaziak taldeak eta M8 plataformak osatzen duten Zornotzako mugimendu feministak manifestazioa antolatu du azaroaren 25erako. Erreferendum plazatik irten-go dute, 18:30ean, eta herriko hainbat kale zeharkatuko dituzte. Mugimenduko kideek azaldu dutenez, segurtasun neurriak une oro mantenduko dira ekimenean.

AZAROAK 25

"EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

12:00etan

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATZEKO KONTZENTRAZIOAREN IRUDIKAPEN SINBOLIKOA



“Maitasun erromantikoak itxura sentimentala eta emozionala duen arren, badu bere alde ekonomikoa eta baita politikoa ere”

Skolastikako Josune Muñozek maitasun erromantikoa detektatzeko eta deseraikitzeo tailerrak ematen dihardu lurretako Ibarretxe kultur etxean



Josune Muñoz
Skolastikako kidea
Bilbo | 1967

IURRETA • JONE GUENETXEA

Maitasun erromantikoaren pelikula kontatu digute. Eta sinetsi egin dugu. Baina zer dago diskurtso horren atzean? Skolastikako Josune Muñozek gai honen inguruko ikastaroak eman ditu lurretan.

Hasteko, zer da maiatsun erroman- tikoa?

Maitasun mota bat dela ematen
duen arren, eraikuntza sozial bat

**“Maitasun
erromantikoan
desberdina dira
neskei eta mutilei
ematen zaizkien
mezuak”**

da. Gizonak eta emakumeak sozializatzeko modu bat da. Ematen du bihotzetik bihotzera doan kontua dela, baina maitasun honek itxura sentimentala eta emozionala duen arren, badu bere alde ekonomikoa eta baita politikoa ere.

Zertan oinarritzen da?

Lau ideia nagusitan kokatu behar-ko ginateke eta horiek dira ikas-
taroetan lantzen ditugun mitoak.
Bat: maitasuna guztiz boteretsua
da eta maitasunak dena lortu de-
zake. Maitatuz gero, bestea aldatu
egingo da. Maiteminduta bagaude,

berehala elkar ulertuko dugu bate-
re arazorik barik. Bi: kosmikoa da
eta gure patuan dago. Gure laranja
erdia. Gu osatzera eta borobiltze-
ra datorren pertsona hori erraz
identifikatuko dugu bat-bateko
maitemina ren moduko bategaz.
Hirugarrena: dena eman behar
dugu maitasun horrek funtzionatu
dezan. Batez ere, emakumeok hez-
ten gaituzte bide horretan. Hortik
datoz *Sin ti no soy nada* eta horrelako
abestiak. Bikoterik barik baka-
rrik gaude eta horrelako ideiak.
Gure sekretuak, gure gorputza,
dena eman behar dugu nahiz eta
momentu horretan gura ez. Lau-
garrena: maitasuna eskusiboa eta
posesiboa izan behar dela litzateke
panorama hori borobiltzen duen
laugarren ideia. Zeloak maitasuna
direla pentsatzea.

Maitasun erromantikoa berdin bizi dugu emakumeok eta gizonok?

Maitasun erromantikoa bai, baina desberdina da neskei eta mutilei ematen zaizkien mezuak. Adibidez, sozializatze bidean, mutil bati esango zaio bizitzan badaudela maitasun erromantikoa baino askoz ere garrantzitsuagoak diren egitasmoak, proiektuak, nahiak eta asmoak. Adibidez, kirola, dirua irabaztea, lanbide bat izatea... Ez kezkatzeko eta maitasuna etorriko dela esaten zaie mutilei. Helduko da emakume bat eta, gainera, emakume horrek amak duen maitasunagaz maitatuko du,

ezer eskatu barik, beti ematen.
Neskei, oster, ez. Neskei esango
zaie euren bizitzaren erdigunean
proiektu sentimental bat egon
behar dela: amatasuna, bikotea,
zaintza... XXI. mendean gaude.
Jakina beste egitasmo batzuk izan
behar dituztela, kirola, lanbidea...
baina bien artean hautatu behar
izatekotan, sentimentalak har-
tzen du aurrea.

Zaintza emakumeok hartzen dugu gure gain.

Bai, eta horren probak modu askotan ikusten dira. Etxean, nork zaintzen ditu seme-alabak eta gurasoak? Emakume askok lanaldi erdia edo eszedentziak eskatuta. %90 emakumeek eskatzen dituzte. Datu esanguratsua da. Eta COVID-19 sasoi honetan hori areagotu egin da. Eta honek guztiak eragin ekonomikoa du. Diru sarrera erdia jasotzen da, eta ondoren jubilariazioan ere erdia jasotzen da.

Zein lotura du maitasun erromantikoak dependentzia emozionalagaz?

Erabatekoa. Eman egin behar duzu, eta, gainera, egitasmo hori zure bizitzaren erdigunean ipini behar duzu. Baina arazoa da ez dutela biek ipiniko. Emakumeek bai, eta gizonek ez. Eta hor kontraesan eta tentsio emozional handiak daude. Hain sozializazio ezberdina eta faltsua izan dugunez, dibortzio kopuru handia ikusten ari gara. Eta alderik txarrean emakumeen kontrako indarkeria.

AZAROAK 25 NOVIEMBRE

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA
DÍA INTERNACIONAL POR LA ELIMINACIÓN DE LA
VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

BELDUR
BARIK
2020

**MAITASUN
ERROMANTIKOA**

DESMUNTATZEN

GAZTE,
HELDU ETA
FAMILIENTZAKO

Emailea ·

Josune Muñoz (Skolastika)

AZAROAK 13, 19 eta 26
gazteentzako saioak

25
Urterakoa

*Escola zentruetan ekintzak
Pegafinak eta puntu moreen banaketa*

"MAITASUN ERROMANTIKOA DESMUNTATZEN"

SKOLASTIKA

15:00-17:00 Irakasleentzako formakuntza
18:00-20:00 Saio libreak: presentziala
(sarrera gonbidapenarekin)
eta on-line

Adierazpen Instituzionala

18:00 Adierazpen Instituzionalaren irakurketaren proiektzioa emango da.

Iurreta
Eiteizateko Udala

Zelan desikasi daiteke hau guztia?

Lehenengo urratsa begiak zabaltzea da. Hau da, ikustea hau eraiki egin dela eta badituela identifikatu daitezkeen ezaugarriak. Zorionez, mugimendu feministak bere hirugarren olatutik dabil material hau lantzen. Begiak zabaltzen ditugunean, badaude bibliografiak deseraikuntzan laguntzeko. Coral

Begiak zabaltzen ditugunean badaude bibliografiak deseraikuntzan laguntzeko

Herreraren materiala, esate baterako. Bere materiala oso ondo dago eta oso blog interesgarria dauka. Ezberdintzen du zelan landu gaia mutilekin eta neskekin. *Las mujeres que ya no sufren por amor* eta *Los chicos que no van a hacer sufrir por amor*. Feminitateak hau guztia zailantzen ipini behar du, baina baita maskulinitateak ere.

Zein eragin du maitasun erromantikoak?

Kontuz ibili behar dugu. Azkenean, egia da emakumeak galtzaile irteten dugula. Ematen du gizonezkoek atarramendu handia dutela. Baina haiei gertatzen zaiena da basamortu emozionalean bizi direla euren sentimenduak adierazteko eta maneiatzeko. Harreman emozional korapilatsu eta mingarriak egiten ditugu. Azkenean, denok irteten dugu galtzaile hain kutsakorra eta gezurrezkoa den amodio eredu honetatik.

Denok irteten dugu galtzaile hain kutsakorra eta gezurrezkoa den amodio eredu honetatik

Orduan, hobe da pelikula erromantikorik ez ikustea?

Ikusi bai, baina era kritiko batean ikusi behar dira. Hurrengo egunetan, horixe da lurretan egingo duguna. Filmak eta telesailak modu kritikoan ikusteko gida bat egingo dugu.

Fikzioan beste era bateko ekoizpenak egiten ari dira?

Bai, orain arte komigintzan lan handia egin da alde horretatik. Orain, maitasun erromantikoa desmuntatzeko telesailak ditugu. Netflixen eta HBOan asko daude antidoto moduan erabili ditzakegunak: *Big Little Lies*, *Euphoria*, *Podría destruirte*, *Sex education*, *Por trece razones*...

Ines Etxegibel, Patricia Espinar eta Agurtzane Elorriaga indarkeria matxistak kirolean duen eraginaz arituko dira

Durango Kirol Taldeagaz eta Zure Taldekoak Gara erakundeagaz batera, mahai-inguruan batuko dira hainbat kirolari. Datorren azaroaren 27an, 18:00etan, San Agustin kultur gunean ipini dute eztabaidarako hitzordua

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango egitarau zabala antolatuko dute azaroaren 25era begira. Egun horretarako, mugimendu feministak ekitaldiak antolatuko ditu (informazio gehiago sare sozialetan). Azaroaren 27an, kirolean gertatzen den indarkeria matxista berberak hartuko dute San Agustin kultur gunean antolatuko duten mahai-inguruan. Bertan izango dira Durango Kirol Taldeko kideak, Zure Taldekoak Gara erakundeak Iraia Hernandez, Ines Etxegibel errugbi jokalaririk durangarra, Patri-

Azaroaren 28an, eraildako emakumeak oroitzeko gunea zabalduko dute Ambrosio Meaben

cia Espinar trinketeen munduko txapeladuna eta Agurtzane Elorriaga txirrindulari ohi eta Bizkaia-Durango taldeko zuzendaria.

Bestalde, azaroaren 28an, eraildako emakumeak oroitzeko gunea

zabalduko dute Ambrosio Meabe kalean. Erika Lagoma bertsolariak eta Ixone Aroma dantzari eta irakasleak ekitaldian parte hartuko dute, 12:00etan. Abenduaren 2an, berriz, prostituzioaren inguru-

ko gogoeta egingo dute, solasaldia baten bidez. Durangoko San Agustin kultur gunean izango da, 19:00etan. Emagi elkarteak Sarah Berlori, Lanbroa kolektibo feministak Begoña Ferro eta Emakumeen

kontrako tratatu txarren hausnarketarako Euskadiko EHULEAK batzordeko Helena Gil izango dira hizlariak. Mertxe Arratibel kazetaria izango da solasaldi horretako moderatzailea.



lazko azaroaren 25ean mugimendu feministak egindako mobilizazioa.

"Seguruak ez diren guneak" identifikatzeko martxa egingo dute Zaldibarren

Azaroaren 26an irtengo du martxak, 18:30ean, udaletxetik



lazko kontzentrazioa.

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarren "seguruak ez diren guneak" identifikatzeko helburuagaz, martxa antolatu dute azaroaren 26rako; 18:30ean abiatuko da, udaletxetik. Maskara erabiltzea eta segurtasun distantziak mantentzea eskatu dute udaletik. Bezperarako, azaroaren 25erako,

Dominika talde feministak elkarretaratzerazera deitu du.

Bestalde, abenduaren 3an 'Mindfulness ziurgabetasun garaian' tailerra egingo da, liburutegi zaharrean, 18:00etatik 20:00etara bitartean. 946 827 016 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko.

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna — Azaroak 25, 2020

Azaroak 19 /Abenduak 3

"Mindfulness ziurgabetasun garaian" tailerra • 18:00-20:00 Liburutegi zaharrean**

Azaroak 25

Udaletik animatzen zaituztegu Dominika Talde Feministak deitzen duen kontzentrazioa batzera.

Azaroak 26

Puntu inseguruak identifikatzeko martxa 18:00etan Udaleko plazan

*Covid-19: Osasun neurriak errespetatuko dira (maskararen erabilpena eta segurtasun neurriak)

*Izena emateko: berdintasuna@zaldibar.eus edo 946827016. Zaintza zerbitzua (adingabeak) egongo da, Zapatubla lokaletan 17:30etatik 20:30etara.



Indarkeria matxistarik ez!



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2021

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria Liburudenda Hitz Liburudenda
ELORRIO	Ilargi
IURRETA	Iurreta kopistegia
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



TOPATU ITZAZU

Hozkailu hauek janari desberdinak dituzte, bost izan ezik. Zeintzuk dira?



Beheko irudi hone



LEKUZ KANPO

etan hainbat objektu lekuz kanpo daude. Zeintzuk dira?



LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea sukaldean
aurkitu daitezkeen objektuekin.





DIFERENTZIAK

Topatu itzazu hamar diferentziak.



TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu fruitu eta barazki hauek txikitik handira.





Pelax

KONTZERTUAK **DURANGO :: Azaroak 21**

'Burrundaria' proiektua aurkeztuko du Plateruenean

Unai Pelayo *Pelax* abeslari eta gitarrista proiektu berezi batean murgilduta egon da azken hileotan: bere sorkuntza lanaren denborarik gehiena film baterako musika konposatzera bideratu du. Azkenean, filma ez da egingo, baina sortutako musika disko batean

jasotzea erabaki du musikari donostiarrak, *Burrundaria* izenpean. Bederatzi pieza instrumental bildu ditu Andoni Olaetxea soinu teknikariagaz grabatutako diskoan. Plateruena kafe antzokian aurkeztuko ditu, azaroaren 21ean, 19:00etan.

Azaroaren 20an

BERRIZ ikuskizuna

'Gorria', 19:30, Berrizko Kultur Etxean.

Miren Amurizak eta Askoa Etxebarrieta 'Pulga'-k eskainitako ikuskizunak bertsoa eta flamenkoa uztartzen ditu.

ELORRIO musika Arriolako

XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Ekhiore Quintet, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA dantza

'Gauekoak' (Kukai), 19:00etan, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 21ean

DURANGO antzerkia

'Fadoak entzuten zituen gizona' (Xake Produksioak), 17:00etan eta 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO musika Arriolako

XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Star Blues, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA euskaraldia

Gimnasia eta Mindfulness saioak (Zuriñe Hldalgo + Iñigo Vicens), 10:30ean, frontoian (50 urtetik gorakoentzat). 2. saioa, 12:00etan (50 urtetik beherakoentzat).

Azaroaren 22an

ABADIÑO zinema

'Ane' pelikularen emanaldia, 19:00etan, Errota kultur etxean.

ABADIÑO berbaldia

'Indarkeria matxistari aurre egiteko antolakuntzaren beharra', 10:00etan, Gaztetxean.

ZORNOTZA irteera

Ahobizi eta Belarripresten mendi igoera Belatxiketara. Tontorrean talde argazkia, 12:00etan (musukoa ipinita eta tarte gordeta). Zornotza Mendi Taldearen eskutik.

Azaroaren 24an

ZORNOTZA zinekluba

'Uno para todos' filma, 19:00etan, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 25ean

ABADIÑO erakusketa

'Gure zapatetan'. Eremu publikoaren indarkeria matxistaren aurkako ahalduntze kolektiborako erakusketa.

Elkarretaratzea, 19:00etan, Trañabarren kalean.

Azaroaren 26an

ZORNOTZA euskaraldia

'Mundu bat motxilan' (Alex Txikon eta Unai Hormaetxea), 18:00etan, Zornotza Aretoa.

Azaroaren 27an

ABADIÑO antzerkia

'Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)' (Aitziber Garmendia), 19:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

'Ikimilikiliklik' (Marie de Jongh), 16:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO musika

Eneritz Furyak, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO musika

Thomas Ospital, 20:15ean, Andra Maria basilikan.

ELORRIO antzerkia

'Pinocchio' (Gorakada), 17:00etan, Arriola antzokian.
'Lloviendo ranas' (Ados Teatro), 19:00etan,

ZORNOTZA euskaraldia

'Ez da kasualitatea' bertso saioa, 20:00etan, frontoian. Eta abar Zornotzako bertso eskolaren eskutik.

ZORNOTZA antzerkia

'Yo, la peor del mundo' (Vaiven produkzioak), 20:15ean, Zornotza Aretoa.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **StarDog & TurboCat**

barikua 20: 16:30

domeka 22: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Hil kanpaiak**

barikua 20 19:00

zapatua 21: 17:30/19:30

domeka 22: 17:30/19:30

astelehena 23: 17:30/19:30

martitzena 24: 19:00

eguzatena 25: 18:00

• **Ondina. Un amor para siempre**

barikua 20 19:00

zapatua 21: 17:00/19:30

domeka 22: 17:00/19:30

astelehena 23: 19:30

martitzena 24: 19:00

eguzatena 25: 18:00

• **Palabras para un fin del mundo**

zapatua 21: 17:30

domeka 22: 17:30

astelehena 23: 17:30

martitzena 24: 19:00

eguzatena 25: 18:00

• **El año que dejamos de jugar**

barikua 20 19:00

zapatua 21: 19:00

domeka 22: 19:00

astelehena 23: 18:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Corpus Christi**

domeka 22: 19:00

astelehena 23: 19:00

• **Trolls2: Gira Mundial**

domeka 22: 16:00

:: Zornotza ARETOA

• **Sentimental**

zapatua 21: 19:00

domeka 22: 19:00

astelehena 23: 19:00

• **Trolls2: Gira mundial**

zapatua 21: 12:00

domeka 22: 12:00

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Azaroaren 23tik aurrera
Biblioteka berriz zabalik!

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak



DURANGALDE

Axpeko plaza

Patxada bila dabilenak ondotxo daki non topatu. Axpeko plazaren bueltan zentzumen guztiak loratu egiten dira. Ganaduaren arran hotsa entzuten da handik, Amillenaren ufadatxoak duen xarma. Inguruok hain dira lasaiak, bertan isiltasuna ere entzun daitekeela. Hala diote batzuek



KO TXOKOAK!



Aixolako urtegia

Itsasorik ez Durangaldean. Pirata istoriorik ez. Kresal usainik ere ez. Baina itsaso faltan, Zaldibarko azken ertzean bada altxor txiki bat. Aixolako urtegia da hori. Durangaldeko itsasotxoa. Urtegia inguratuta, paisaia zoragarriak topatu ditzake bisitariak, udazkenean batez ere.

Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren
lagun
30€

Anbotoren lagun
**Bizkaia aurrera
kultura** bonuaren
launtzagaz
15€

1

Eskuratu Bizkaia
AurreraKultura bonua
BBK-ko kutxazainearen edo
<https://kutxabank-bakb.jan.to.es/eu/comprar>
webgunean
15€-an



2

Etorri kultura bonuagaz
Anbotoko bulegora
(Bixente Kapanaga 9
behea, Iurreta) eta egin
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren
lagun txartelari!
Gozatu abantaila eta
deskontuez



+



* Erosteke azken eguna 2021.05.24/
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: anboto@anboto.org
Deitu: 94 681 65 58
www.anboto.org





Botikak

BARIKUA, 20 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 21 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 22 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 23 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 24 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 25
09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 26 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Epa, **Ekhi**: Domekan, azaroak 22, 5 urte egingo dituzu. Mezu hau zuretzat da: jarraitu betiko modukoa izaten, zoriontsu, ez zaitez sekula ere aldatu. Eskerrik asko, txiki!

Azaroaren 24an **Yosu Echevarriak** 36 urte egiten ditu, zorionak eta egun ona pasa dezazula. Muxu bat Carmen, Oihane eta Juneren partez.

Zorionak gure etxeko sorgin maitagarriari, bere 6. urtebetetzeari. Ondo pasa. Askok maite zaitugu!

Eguraldia

ZAPATUA 13° / 8° ☁

DOMEKA 17° / 6° ☀

ASTELEHENA 17° / 6° ☀

MARTITZENA 17° / 7° ☁

EGUAZTENA 14° / 7° ☁

EGUENA 13° / 7° ☁

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Eskerrik asko, Durango!

Cugatik egiten duzuna eskertzeko ordua heldu da...
Jarraitu herrian crosten
eta sari guzti hauek irabazi!

Sari 1 · 1.000€	2 Sari · 500€
10 Sari · 100€	100 Sari · 20€

*Deskontu baleak izango dira ·
Eta beste hainbat sari!

Dendak Bai

688 738 102

www.dendakbai.eus

“Sukaldaritzatik haratago doan esperientzia eskaini gura dut”

Maore Ruizek bestelako kultur diziplinekin uztartu gura du sukaldaritzaz, eta bide horretan sortu du 'Basoka'; sare sozialen bitartez zabaldu du proiektu gastronomiko hori



Maore Ruiz Lizundia
Basoka proiektua ipini du martxan
Sarria (Berriz) | 1994

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Gastronomiaren bitartez, kontsumo jasangarri bat posible eta beharrezkoa dela erakutsi gura du Maorek 'Basoka' proiektuagaz. Eta orain gutxi Mikel Gomez elorriarra batu da zaio proiektura, egitasmoaren irudia lantzeko. Durangoko Azokan, egoerak horretarako aukera ematen badu, gastronomia eta literatura uztartuko dituen ekitaldia egin gura dute, Hiruka jatetxeagaz eta Peru Magdalenagaz elkarlanean.

Euskal mundutik ekitaldien bitartez kontsumo jasangarria bultzatzea. Esaldi horrek laburbiltzen du 'Basoka'. Zertan oinarritzen da proiektua? Konfinamendu sasoian kozinatutako proiektua da. Norvegiatik eto-

rri nintzen iaz, eta denbora luzean etxetik kanpora egon ondoren proiektu pertsonal bat garatzeko gogoia nuen. Bada, gertuko produktuak erabiliz, neuk prestatutako platerak erakusten hasi nintzen sareetan. Basoko landareen gaineko informazioa zabaltzen ere bai, gure inguruan duguna ezagutarazteko eta inguruko produktu eta ekoizleekin egin genezakeena erakusteko. Gauza introspektibo bat lez hasi zen dena, ez nuen-eta inogaz elkartzeko aukerarik.

Beste dimentsio bat hartu du gero.

Hori guztia jendeari transmititzeko aukera ikusi nuen eurentzat kozinatuz. Hartara, udan ekitaldi bi egin genituen, elkarlanean: bata Lagan, eta bestea Ogeiako hon-

dartzan. Lagan, esaterako, yoga saioa eta afaria eskaini genituen. Sukaldaritzaz zerbitzua eskaintzea eta aldi berean ekitaldiak sortzea da helburua. Esperientzia borobilagoa izango da askotariko diziplinak uztartuz gero.

Sukaldaritzatik haratago esperientzia bat eskaini gura du 'Basoka'-k?

Bai, hala da. 'Basoka'-k ekitaldi gastronomiko bat eskaintzen du, inguruko ekoizleen sasoiko produktuak erabilita. Orain, proiektua ezagutaraztea da helburua. Hala ere, ekitaldi global bat eskaintzea interesgarria iruditzen zait, eta, proiektu inklusiboa izanik, esperientzia bizi gura duen edonorentzat eskuragarria izatea. Horixe da erronka. Asko gustatzen zait

beste arte modu batzuekin jolastea, argazkilaritzagaz, modagaz, musikagaz.... Ez dut neure burua kozinatzen bakarrik ikusten. Ikuspegia zabaldu gura nuke, eskaintza desberdin bat egin. Adibidez, Abadiñon taloak egin gura nituzte San Blas egunean.

“

"Asko gustatzen zait beste arte modu batzuekin jolastea: argazkilaritzagaz, modagaz, musikagaz..."

—

Sukaldaritzaz artea da?

Ez du zertan izan. Baina sormen prozesuan antzekotasun asko dau dela esango nuke. Sukaldaritzan azken emaitzak ez du denboran irauten, arte piezak lez. Memorian baino ez du irauten, eraldatuta, gainera. Baina, bai, zati handi batean artea da sukaldaritzaz.

Norvegian urte bi egin ondoren bueltatu zinen Durangaldera, iaz. Hala ere, aurretik, hainbat herrialdetan ibilitakoa zara kozinatzen.

Ikasten nengoela, praktikak egin nituen, lehenengo Berrizen eta gero Bartzelonan (Herrialde Katalanak), Hegoafrikan eta Lugon (Galizia). Ikasketak amaitu ondoren, Japonian ere izan naiz.

Aukeratuko zenuke horietariko bat?

Japoniarren kozinatzeke era sinple eta purua; asko gustatzen zaizkit erabiltzen dituzten produktuak. Ez nuen denbora askorik egin han, baina esango nuke eragina izan duela nire kozinatzeke eran. Hala ere, Eskandinaviako sukaldaritzak eragin nau gehien. Ez dut estilo zehatz bat oraindino, baina asko hortik datorkit.

Proposatuko zeniguke menu bat?

Hasteko, kuskus entsalada. Kuskusa kozinatu ondoren, barazkiak botako nituzke, txikituta: piperra, tipula, ozpinetan ipinitako alkapparak edo pepinoak. Lima edo limoi txorrotada, olio, piper beltza eta martorria gaineratuko nizkioke. Eta, gero, Tzatzikia. Kuskusa barik, dilistak edo garbantzuak erabili daitezke.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Jubilatua / irakaslea



Cohousing-a

Zorionez, gizakiak gero eta urte gehiago hartzen ditu eta askok baldintza onean. Urte muga batzuetatik aurrera, pertsonen arabera, gure gorputza edo burua ahultzen eta indarrak galtzen doa. Egoera horri aurre egiteko, orain arte, bi aukera egon dira; etxearen babesean geratu familiarekin, bakarrik edo zaintzaile batekin edo, bestela, nagusien egoitza batera joatea.

Momentu honetan bi aukera horiei beste bat gehitu zaie: cohousing-a. Kooperatiben bitartez zerbitzu mankomunitatuak (jantokia, garbategia, elkartzeko guneak, medikuen zaintza, ortua, gimnasioa, ...) dituzten apartamentuak sortzea.

Gaur egungo nagusien egoitzak ikusita, eta nik izandako esperientzia txarra kontuan hartuta, ni neu cohousing-aren alde jotzeko prest nago.

Nire ustez, sistema honek abantaila handiak ditu berraztertzen direnentzat, bere kabuz bizitzeko gai badira edo laguntza txikiak behar badituzte behintzat, beraien independentzia mantentzen dutelako eta komunitatean bizitzeko aukera dutenez ez liratekeelako inoiz bakarrik sentituko.

Foru Aldundiak esaten ari dira gaur egungo egoitzen eraketa guztiz aldatu behar dela, ba horren aurrean hemen daukate aukera ezin hobea. Lur publikoa eskaintzea eta kooperatibak sortzeko baliabideak jartzea, edo gero bakoitzak ikus dezala aipatu ditudan aukeretatik zein hartu.

Nagusiek nahikoa lan egin dutenez, beraien azken urteak ahalik eta ondoen igarotzeko esparruak eskaini behar dizkiegu eta gu ere zahartzen goazenez etorkizuna prestatu.

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

**GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

